

GALDERA ERRONDA

- 1. Zer aldatu beharko litzateke lan-munduan, euskararen erabilera lan munduan areagotzen jarraitu ahal izateko? Nola egokitu beharko lirateke euskara planak horretarako?**
- 2. Zer daukate elkarri emateko eta hartzeko bestelako euskalduntze planek eta lan mundukoek?**
- 3. Datozen 4-5 urterako arloko erronka nagusiak?**

ADEGI

Jon Etxabe - Komunikazio Departamentua
Helbide elektronikoa: adegi@adegi.es

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Lehenik eta behin lan munduaz ari garelarik eta enpresen jardueraz, Gipuzkoako enpresen ikuspegitik zera esan nahi genuke, asko eta asko direla euren egunerokotasuna euskaraz burutzen duten enpresak, zenbait bailaratan ia kasik euskara hutsean. Baina lan mundua anitza da. Enpresak era askotakoak dauzkagu eta langile multzoak ere bai. Langile kopurua asko aldatzen da enpresa batetik bestera, baita langile hauen euskal hiztun erabiltzaile kopurua ere; kokapenak eta inguruak zer esan handia du enpresan egiten den euskararen erabilerarekin; enpresak negozioa non egiten duen ere kontuan hartu behar da, alegia bezeroak eta hornitzaileak non dituen, etab. Beraz, aipaturiko aldagai guzti horiek aintzat hartu beharko dira enpresen eta lan-munduaren euskararen erabileraz ari garenean eta euskara planak egiten ditugunean. Alegia, ez dago enpresa guztientzat balio duen trajerik, enpresa bakoitzak egin beharko du bere neurrirako egokia dena.

Baina, egitasmo guztien aurretik, norbanakoaren (zuzendaritza taldeko kide edo kide) motibazioa eta inplikazioa ezinbestekoak dira. Motibazio eta inplikazio horiek abiapuntu hartuz eman ahal izango dira urrats ezberdinak lan-munduaren euskalduntzean, beharra eta kontzientzia hori ez badago egin daitezken diagnostikoak eta diseinatu daitezken planak hutsean geratuko dira.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Orain arte esparru ezberdinetan martxan jarri diren euskara planek, nahiz diseinurako orduan, nahiz garapenerako unean, euren esperientzia aberatsa eman dezakete. Euskararen erabilpenarena kudeatzeko martxan jarri daitezkeen prozesuetan, enpresek asko ikas dezakete horretan eskarmentua duten beste erakunde eta enpresetatik, esperientziaren aberastasuna beti da onuragarria horrelakoetan. Enpresek, aldiz, euskararen erabilpena lan-munduan sustatzeko eta indartzeko, enpresa kudeaketan erabiltzen diren teknikak erakutsi ditzakete, baliagarri diren neurrian euskararen kudeaketan eta horretarako beharrezko diren urrats ezberdinetan erabil daitezten.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Orain arte eman diren urratsak eta lortu diren emaitzak sendotzea, lan-

Baina, egitasmo guztien aurretik, norbanakoaren (zuzendaritza taldeko kide edo kide) motibazioa eta inplikazioa ezinbestekoak dira.

Motibazio eta inplikazio horiek abiapuntu hartuz eman ahal izango dira urrats ezberdinak lan-munduaren euskalduntzean, beharra eta kontzientzia hori ez badago egin daitezken diagnostikoak eta diseinatu daitezken planak hutsean geratuko dira.

Orain arte eman diren urratsak eta lortu diren emaitzak sendotzea, lan-munduan dabiltzan gizabanakoengan euskararekiko motibazioa eta kontzientzia sustatzea, gure enpresetan euskararen ezagutza eta erabilpena areagotzea, eta lan-munduan, nahiz langileen artean, enpresaren eguneroko jardunean, hornitzaile nahiz bezeroekin ditugun harremanetan, barne komunikazioan euskara baliaraztea. Horretan enpresa bakoitzak ikusi beharko du, zein den bere egoera, eta zer urrats eman behar dituen.

munduan dabiltzan gizabanakoengan euskararekiko motibazioa eta kontzientzia sustatzea, gure enpresetan euskararen ezagutza eta erabilpena areagotzea, eta lan-munduan, nahiz langileen artean, enpresaren eguneroko jardunean, hornitzaile nahiz bezeroekin ditugun harremanetan, barne komunikazioan euskara baliaraztea. Horretan enpresa bakoitzak ikusi beharko du, zein den bere egoera, eta zer urrats eman behar dituen, beharrezko laguntza eta aholkularitzarekin euskararen erabilpena egunerokotasunean sendo sustraitu dadin.■

LAB SINDIKATUA

Helbide elektronikoa: lanosasunabizkaia@labsindikatu.org

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Gure ustez, euskararen normalkuntzarako plangintza estrategiko orokor eta integrala egin beharko litzateke, euskal gune sozioekonomikoa bere osotasunean hartuta. Plangintzaren zutabeak eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko konpromisoa jasotzen duen akordioa izan behar du. Soilik horrela lortuko da gaur egun dauden ekimen boluntarista eta isolatu-etatik haratago joatea.

Aipaturiko planaren ezaugarri estrategiko, orokor eta integralek honako esangura hau dute guretzat:

-Estrategikoa: Aurrean dugun erronka handia da, beraz ez da epe motzeko kontua. Aitzitik, epeka lortu beharreko helburu mailakatuak finkatu behar dira, urratsez urrats euskararen normalkuntza lortu ahal izateko.

-Orokorra: Lan mundua osatzen duten sektore jarduera guztiak aintzat hartu beharko lituzke, eremu publiko zein pribatukoak izan.

-Integrala: Lan jarduerari dagozkion funtzio, harreman eta gune guztiak bereganatzea izan beharko da helburua.

Lan munduan euskarak bizi duen egoera larritasun handiz ikusten dugu; bertan dagoen gabezia izugarria delako eta horretaz gain, gabezi horren ondorioek hizkuntza normalkuntzari dagokionez, jendarte alor guztietan eragin kaltegarria dutelako. Izan ere, lan mundua jendarteratzeko bitarteko nagusia den heinean gure bizi denborak, guneak, harremanak... baldintzatzen ditu eta kasu guztietan hizkuntzaren presentzia eta erabilera ere.

Gogorra da ikustea hezkuntzaren bidez ikasleak euskalduntzeko, neke handiz, egiten diren ahalegin eta aurrerapausuak lan munduan sartzera koan atzerapausu bihurtzen direla. Jakina da Euskal Herrian euskara normalizazio bidean jartzeak nahitaez lan mundua euskalduntzeko estrategia eraginkorra exigitzen duela. Hori da gure erronka.

Zeregin horretara bideratu beharreko baliabideak mota askotakoak dira, euren artean garrantzitsuena aipaturiko plangintza estrategikoa dugu. Halere, plangintza burutu bitartean, asko dira honen ildotik, dagoeneko, martxan dauden edo jar daitezkeen neurriak.

Lehenengoa, euskarari dagokion estatusa ematea eta horren arabera lege onarpenaren aplikazioa errealki gauzatzea eta garapen egiturak sortzea: Kontsumitzaileen Legea eta EuskaLan (Osalanen parekoa EAEn), esate baterako.

Gure ustez, euskararen normalkuntzarako plangintza estrategiko orokor eta integrala egin beharko litzateke, euskal gune sozioekonomikoa bere osotasunean hartuta. Plangintzaren zutabeak eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko konpromisoa jasotzen duen akordioa izan behar du. Soilik horrela lortuko da gaur egun dauden ekimen boluntarista eta isolatu-etatik haratago joatea.

Sindikalgintzak langileen eskaera soziala landu behar du euskararen berreskurapenean aurrera egin dezagun. Nola? Besteak beste, lan hitzarmenetan euskararen sustapenerako neurriak sartuz, lantokietako euskara planak bultzatuz, euskararen aldeko ekimen sozialekin bat eginez, enpresen jendarte erantzukizuna aldarrikatuz... Euskarari gure agenda sindikalean toki garrantzitsua egin behar diogu.

Bigarrena, euskararen aldeko eskaera soziala eta sentsibilizazioa indartzea da. Horretan sindikatuok berebiziko ardura dugu; izan ere, pasibokeriak egungo hizkuntza estatusaren alde egiten du, alegia, erdarearen erabilera sustatzen du euskararen berreskurapenaren kontra. Sindikalgintzak langileen eskaera soziala landu behar du euskararen berreskurapenean aurrera egin dezagun. Nola? Besteak beste, lan hitzarmenetan euskararen sustapenerako neurriak sartuz, lantokietako euskara planak bultzatuz, euskararen aldeko ekimen sozialekin bat eginez, enpresen jendarte erantzukizuna aldarrikatuz... Euskarari gure agenda sindikalean toki garrantzitsua egin behar diogu.

Hirugarrena, lan munduan dihardugun eragile desberdinen arteko euskararen sustapenerako hitzarmenak adostu behar dira, zeinak sindikatu, enpresari, eta administrazioen konpromisoak biltzen dituzten. Gaur egun udalerrien arteko guneetan baino ez daude mota honetako hitzarmenak. Alta, LABen ustez premiazkoa da, euskal gune sozio ekonomikoa eta honi dagokion lan harreman esparrua aintzat hartuz euskararen normalizaziorako eragileen arteko hitzarmena burutzea. Hitzarmen honek bidea emango bailioke aldarrikatzen dugun normalizaziorako plangintza estrategikoari. Hitzarmenaren alde egin behar dugu gaur egun dauden lan harreman eta jendarte eta ekonomiarako kontseilueta- tik, alegia, zeregin horri begira jarri behar ditugu EAEko Lan Harremanetarako Kontseilua eta Kontseilu Ekonomiko Soziala, Nafarroako CES eta Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua, besteak beste. LABen proposamena hurrengoa da: Lan eremuko eragile sektorialen arteko hitzarmena burutzea lan eremuaren euskararen normalkuntzarako FUNDAZIOA sortzeko.

Aurrekoetz gain, badago lan munduan euskararen normalizazioa lortu ahal izateko ezinbesteko tresna bat, legea, hain zuzen ere; gure ikuspuntutik euskarari hizkuntza nazionalaren izaera aitortu behar diona. Euskal Herriko lurralde zatiketa politiko administratiboak hizkuntza estatus juridiko desberdinak ondorioztatzen ditu. Egoerarik larriena euskararen ofizialtasuna ukatzen duena bada ere asko dira, oro har, euskararen sustapena eragozten duten jokabideak. Asko dira ahuluneak, arriskuak eta hizkuntza eskubideen urraketak. Bizi dugun errealitate gordinak, inoiz baino beharrezkoagoak egiten ditu Euskal Herriko gune sozio-ekonomikoa eta lan harremanen euskalduntzea bermatzeko neurri legislatiboak.

Galderaren bigarren atalari dagokionez, euskara planen egokipenei, alegia, gure ustez, arazo nagusia enpresa planen gaineko lidergoa jarrera positibo baten eta plan orokor baten faltan datza; arestian aipatu lan munduari bideratutako plan estrategikoaren faltan, hain zuzen ere.

Planei buruzko balorazioaren inguruan, sektore publikoa eta pribatua bereiztuz, gure irakurketa honela labur daiteke:

Sektore publikoan, teoriar baldintzarik onenak dituzten lurraldeetan, alegia, egungo EAEkoak, abian jarritako euskararen normalizaziora-

ko plangintzak ez dira betetzen ari. Are txarrago oraindik, hasierako helburuak "gehiegizkoak zirelakoan" jaitsi egin dituzte. Horrekin batera, Osakidetzaren plangintzaren afera dugu; hogeita hiru mila langile baino gehiagori eragin behar dion planak, mende laurdeneko atzerapenarekin, abiatzear omen dago. Nafarroan, administrazioaren euskararen aurkako jarrera aktiboa baino obsesiboa duela esan dezakegu; erasoen salaketa egunerokoa dugu. Azkenik, Ipar Euskal Herrian euskararen ukazioa etengabea da.

Eremu pribatuari dagokionez, enpresaz enpresa egiten ari den ahalegina goraiatzekoa bada ere euskararen normalizazioaren ikuspuntutik ez dela nahikoa deritzogu. Izan ere, enpresen planetan dagoen elementu komuna eta bakarra euskararen alde egiteko borondatea da. Beste modu batera esanda, oztopo guztien gainetik euskararen sustapenean aurrera egiteko asmoa. Hortik haratago ez dago besterik. Gaur egun ezerk ez ditu euskararen normalizazioaren alde egitera behartzen. 2000 urteko EAEko Kultur Sailaren agindu baten bidez enpresei diru laguntzak eskaintzen zitzaizkien planak burutzeko; hala ere, 2004an normalizazio planak zituzten enpresak 110 baino ez ziren.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Esan beharra dugu ez dugula posible ikusten lan mundua aintzat hartzen ez duen euskalduntze planik. Arestian esan bezala lan mundua jendarteratzeko gune eta tresna nagusia den heinean, kasu guztietan kontuan hartzeko aldagaia dugu. Maila orokorreko politiken diseinutik hasita (hez-kuntza, osasungintza, justizia... etabar) herrialde eta herri politiketaraino. Ezinezkoa da hizkuntza normalizaziorako estrategia zehaztea lan mundua albo batera utzita. Argi dago gaur egun dauden planak partzialak direla, ikuspegi globala falta zaielako. Halere, gabeziak gabezi, gailentze-ko da udal batzuen arteko lanak plangintza integralak aurrera eramateko.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

LABek bere euskalduntze planean jarritako helburuak bi norabide ditu:

Alde batetik, sindikatu barruan, aurrera begira euskararen normalizaziorako neurriak hartzen jarraituko dugu; behar diren egokipen eta aldaketak eginez. Horrela bi helburu nagusi lortu nahi ditugu: LAB bera euskararen normalizazioan subjektua izatea eta LAB lan munduan eta euskal jendartearen, oro har, normalizaziorako eragile bilakatzea.

Bestetik, baina aurrekoarekin lotuta, LABek lan munduan euskara berreskuratzeko eta sustatzeko ahalegin guztiak egingo ditu. Dagoeneko martxan dagoen ekimen garrantzitsuenetarikoa Kontseiluarekin sinatutako Akordio Sozio Politikoa dugu. Horren haritik, euskararen aldeko konpromiso kanpaina burutzen ari da mila enpresa baino gehiagotan,

Esan beharra dugu ez dugula posible ikusten lan mundua aintzat hartzen ez duen euskalduntze planik. Arestian esan bezala lan mundua jendarteratzeko gune eta tresna nagusia den heinean, kasu guztietan kontuan hartzeko aldagaia dugu. Maila orokorreko politiken diseinutik hasita (hez-kuntza, osasungintza, justizia... etabar) herrialde eta herri politiketaraino.

EMUN KOOP.

Helbide elektronikoa: emun@emun.com

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Euskarak arlo sozioekonomikoan benetako presentzia izan dezan lanean jarraitu ez eze lan hori indartu egin behar da, izan ere gaur dugun erritmoa motelegia da normalizazioan ganorazko urratsak egin ahal izateko. Zenbait aldaketa beharko lirateke horretarako:

- Euskarak zenbaitentzat duen konnotazio politiko negatiboa galdu egin beharko luke; horretarako euskara guztion hizkuntzat hartzeko pausuak eman behar genituzke, eta ideologia guztietako jendea inplikatzeari lortu.

- Euskara planetarako metodologiei buruzko ikerketa eta garapena askoz ere gehiago landu behar da, eta hori ezin da egon soilik enpresa pribatuen gain, Administrazio Publikoak ere erantzukizun handia baitu horretan.

- Lan munduko eragileek (sindikatu, ugazaba, kooperatiba, administrazio publiko...) gaiari lehentasuna eman beharko liokete, bestela ezinezkoa izango baita aurrera egiterik.

- Eragileen arteko elkarlana ere ezinbestekoa da; gaur egun zenbait ekimen bidean geratzen dira edo bikoiztu egiten dira elkarlana falta delako edo zenbait eragileren kasuan elkarlana egon beharrean batzutan lehia ere badagoelako.

- Arlo sozioekonomikoa ez dagoenez gizartetik aparte, elkarrekin lotuta joan behar dute gizartean euskarak aurrera egiteko ekimenek eta lan mundukoek.

- Lege arloan ezin dugu ahaztu oraindik ere Euskal Herriaren zati handi batean euskara ez dela ofizial izatera ere iristen eta administrazioen aldetik erasoak ere izaten direla; ofizialtasun osoa eta lege babes handiagoa behar du euskarak eta euskal hiztunek

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Administrazioan oraindik ere hutsune handiak daude Euskal Autonomia Erkidegoan eta are gehiago Nafarroan eta Iparraldean. Hala ere administrazioeko euskara planek badituzte emateko modukoak:

- Urte askoko esperientzia, eremu pribatuan baino lehen ekin baitzitzaion sektore publikoko euskara planei eta baliabide asko erabili dira horretan

- Erakundeetako hizkuntz erabilera, eta batez ere ezagutza, arautzeko esperientzia handia dago administrazio askotan.

- Zerbitzu hizkuntza izan dadin egindako aurrerapenak handiak

Euskara planetarako metodologiei buruzko ikerketa eta garapena askoz ere gehiago landu behar da, eta hori ezin da egon soilik enpresa pribatuen gain, Administrazio Publikoak ere erantzukizun handia baitu horretan.

JESUS UZKUDUN

CCOO sindikatuko kidea

Helbide elektronikoa: juzkudun@euskadi.ccoo.es

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Askotan hizkuntza gaitasuna bermatuta dagoela ikusirik, eta batzuetan halakorik ez dagoenean ere, sentiberatze lanari ez zaio behar besteko garrantzirik ematen. Euskara planak ezartzen direnean, arreta handiagoa eskaintzen zaio euskalduntzeari edo erabilerari. Horietan arrakasta izateko, ordea, sentiberatze lana egin beharra dago, eta are gehiago enprestatan, gaztelania guztiz barneratuta baitute. Hala, gaztelaniadunak ere euskara bere egitea lortuko dugu; beharbada ezin izango du euskaraz jardun, baina euskararekin lotutako hamaika ekimen lagundu eta bultzatu ditzake. Euskaldunei dagokienez, beste horrenbeste: euskara balioesten ikasiko dute, eta, ondorioz, hizkuntza "artxibategitik" atera eta egunero ko solasaldira ekarriko dute. Sindikatuok helburu hori lortzen lagun dezakegu, langileengan eta enpresariengan pixka bat eragiteko ahalmena dugun neurrian.

Bada, ordea, euskararen erabilera areagotzeko ekintzetan zaindu beharreko alderdia: euskara ezin da enplegua galtzeko arriskua sortzen duen elementua izan. Eta hau azaltzeko adibide egokia da Bilboko Ur Patzuergoan egindako lehen EPEa. Oposaketa gainditzeko euskara azterketak jarri dituzte, eta emaitzak baztertzailak dira. Kontua da EPEra aurkeztutako langile askok 15 urte daramatela bertan lanean, eta orain arte ez zaie euskara ikasteko eskaera edo agindurik eman. Lanpostuari derrigorrezko data ipini eta euskalduntzeko denbora eta baliabideak eskaini ordez, goizetik gauera euskara gaitasuna frogatzeko eskatu zaie, eta, halakorik egin ezin dutenez, kale gorrian geldituko dira. Halako atakan daudela, langileek errurik ez duenari, euskarari, muzin egiteko arriskua dago. Administrazioak pizgarriak eta aurrekontu handiagoak eskaini behar ditu enpresak euskalduntzeko, eta malgutasuna zein borondatea ezinbesteko osagaiak dira zeregin horretan.

Bestalde, egungo industria paisaia guztiz aldatu da, lehen lantegi erraldoi zirenak orain langile gutxiko lantoki bilakatu dira, baita ugaldtu ere. Sindikatuok gero eta nekezagoa dugu ekintza sindikala enpresa guztietara helaraztea, eta zailtasun hori bera egon daiteke euskararen erabilera bultzatzeko saioetan. Funtsezkoa da, ordea, lan kontuak direla, hizkuntza kontuak direla, enpresa txikietan ahalegina egitea, langileek gizartearen egitasmoetan parte hartzeko aukera berbera izan dezaten. Ezin dugu ahaztu Euskadiko enpresen %90 txikiak direla. Hortaz, lan hori guztia erraztuko duten bideak eta tresnak bilatu behar ditugu.

Bestalde, egungo industria paisaia guztiz aldatu da, lehen lantegi erraldoi zirenak orain langile gutxiko lantoki bilakatu dira, baita ugaldtu ere. Sindikatuok gero eta nekezagoa dugu ekintza sindikala enpresa guztietara helaraztea, eta zailtasun hori bera egon daiteke euskararen erabilera bultzatzeko saioetan. Funtsezkoa da, ordea, lan kontuak direla, hizkuntza kontuak direla, enpresa txikietan ahalegina egitea, langileek gizartearen egitasmoetan parte hartzeko aukera berbera izan dezaten.

Beste hamaika arlotan bezala, euskarak aurrera egingo badu funtsezkoa da indar guztiak batzea, indar politikoak zein sindikalak, abertzaleak eta abertzale ez direnak. Zoritxarrez, ez da alor guztietan borondate berbera ageri. Esparru politikoan atearak zabaltzen eta adostasun guneak bilatzen ari diren une honetan, sindikalgintzan berebiziko banaketa dago, eta frentismo horrek berebiziko kaltea egiten dio euskarari .

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Administrazioko hizkuntza politikan ikuspegi kuantitatiboak garrantzi handiegia hartzen du. Euskara gaitasuna lortu duten langile kopuruari garrantzi handia ematen zaio. Askotan, ordea, behin hizkuntza eskakizuna eskuratuta euskara alde batera uzten da. Alegia, euskararen erabilera ez dago gaitasunaren parean. Enpresetako euskara planetan gehiago zaintzen da alderdi hori, eta zenbat euskaldun dauden begiratu ez ezik, euskaraz zer egiten duten eta nola hobetu dezaketen ere begiratzen da. Gainera, gure ustez enpresetan gehiago bultzatzen da zuzendariak parte hartzea eta ardura hartzea; ezinbesteko baldintza edozein egitasmoak arrakasta izateko.

Administrazioak lan munduari egin dion ekarpen nagusia hizkuntza eskakizuna bera da. Hau da, hizkuntza gaitasuna erakusteko adierazleak eskaini dizkie enpresei, hizkuntza eskakizunak lagungarriak baitira euskara maila edo hizkuntza irizpideak zehazterakoan.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Beste hamaika arlotan bezala, euskarak aurrera egingo badu funtsezkoa da indar guztiak batzea, indar politikoak zein sindikalak, abertzaleak eta abertzale ez direnak. Zoritxarrez, ez da alor guztietan borondate berbera ageri. Esparru politikoan atearak zabaltzen eta adostasun guneak bilatzen ari diren une honetan, sindikalgintzan berebiziko banaketa dago, eta frentismo horrek berebiziko kaltea egiten dio euskarari –beste gizarte gai batzuei bezalatsu–.

Euskararen egoera ikusita, ezin gara ekimenak eta egitasmoak baztertzen eta gaizki esaka ibili. Bakoitzak bere esparruan badu zer egina, eta, ekarpen txiki edo handi, denak dira baliagarriak hizkuntzaren erabilera altxatzeko. Horren adibide dira zenbait udalek lan munduan bultzatutako kanpainak, hala nola Buruntzaldekoa. Egitasmo horren bidez udal, enpresa, eta sindikatuak hainbat lantokitan euskara planak bultzatzeko lana egiten ari gara. Lana koordinatua da, eta guztion ahalegina biltzen duen akordioa dela esan daiteke. Langile Komisioen (CCOO) ustez txalogarriak dira halako ekimenak, eta sortzen diren guztietan parte hartuko dute. Elkarlanaren beste adibide bat Egunkariaren alde egindako lana izan liteke. Indarrak batzeko arrazoia bestelakoa bada ere, sakonean euskara bere ahuleziaz ateratzea da helburua, eta horretan ia denok saiatu gara.

Bada beste ekimen bat, Kontseiluak bultzatutako Akordio Soziopolitiko delakoa. Tamalez, Kontseiluaren akordio soziopolitikorako proposamenean ez da akordio zabala lortzeko aukerarik egon, ez baita elkarlana egiteko interesik egon. Adibidez, Kontseiluak sindikatuek garatzeko den kanpaina diseinatu du, eta CCOO-k horren aurkezpenean eta garape-

*Euskararen erabileraren
ziurtagiria dugu Bai
Euskarari. Lehenengo
maila izan ezik (Bidean),
beste bietan zerbitzua
euskaraz bermatzen dela
edo horrez gain barruko
lanean ere euskara
erabiltzen dela,
egiaztatzen dute
ziurtagiri honen 2. eta 3.
mailek. Bai Euskarari
ziurtagiria exijitzea EGA
exijitzea bezain arrunta
bihurtzen den egunean,
orduan lortuko dugu lan
mundua benetan
euskalduntzea.*

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA

Helbide elektronikoa: posta@artez.net

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Lan mundua euskalduntzeko aldaketa asko egin behar dira. Izan ere, egungo erritmoa azkartzen ez badugu, datozen 10-20 urtetan nekez helduko gara irakaskuntzan lortu den mailaren erdiraino ere.

Aldaketa nagusiak ez daude metodologian eta prestakuntzan. Bai ordea "merkatua" bizkortzean. Hau da, enpresek beharra sentitu behar dute euskararik gabe ez dutela zerbitzua ondo ematen Euskal Herrian. "Merkatua" bizkortzeko, oinarritzko neurri hauek garatu beharko lirateke:

- **Ziurtagiria.** Bai Euskarari ziurtagiria mugarria izan da enpresa eta erakundeen euskalduntze prozesuan. Euskararen ezagutza ziurtagirietako, badira 30 urte inguru Euskaltzaindiak lehenengo ziurtagiriak egin zituela, ondoren EGA bihurtuko zirenak. EGAK, eduki ditzakeen akatsak gorabehera, balio izan die erakunde eta enpresei langile euskaldunak kontratatzerakoan hizkuntza maila bat egiaztatzeko. Bestetik, lan bila dabilzanentzat ere erreferentzia da lana aurkitzeko orduan.

Euskararen erabileraren ziurtagiria dugu Bai Euskarari. Lehenengo maila izan ezik (Bidean), beste bietan zerbitzua euskaraz bermatzen dela edo horrez gain barruko lanean ere euskara erabiltzen dela, egiaztatzen dute ziurtagiri honen 2. eta 3. mailek. Bai Euskarari ziurtagiria exijitzea EGA exijitzea bezain arrunta bihurtzen den egunean, orduan lortuko dugu lan mundua benetan euskalduntzea.

- **Eskaera pribatua handitu.** Gaur egun kontsumoa nolakoa, eskaintza halakoa izaten da. Irakaskuntzan denok nahi izan dugu euskarazko eredu gure seme-alabentzat eta, horrela, D eredu Euskal Herriko ia bazter guztietan daukagu. Baina zerbitzuetan, ekonomian... inork gutxik eskatzen du menua euskaraz jateko batean, edo aurrekontua eta faktura euskaraz hornitzaile bati. Are gehiago, euskaraz diharduten ikastetxe, argitaletxe, hedabide eta elkarte edo enpresa gutxik ezartzen dizkie hizkuntz irizpideak, hornitzaile baten zerbitzuak hartzerakoan. Beraz, euskaldunok "benetan" ez badugu berbaz eta idatziko komunikazioak euskaraz jasotzerik nahi, enpresek zertarako "galduko" dute dirua eta denbora komunikazioak bi hizkuntzetan jartzen?

Irudimen, gogo edo ekintza egokiak egitea ezinbestekoa da eskaera handitzeko: kontsumitzaile gisa zerbitzu edo produktuak erosten ditugunean, euskara ere baloratzea; erdarazko zerbitzua jasotzen dugunean modu onez euskarazko zerbitzua eskatzea; Kontseiluak,

euskarekiko norbanakoren konpromisoen barruan, errenta aitortpena euskaraz egiteko moduko kanpainak egitea, etab.

- **Eskaera publikoa handitu.** Quebecen hau izan zen haien hizkuntza politikaren lehenengo oinarrietako bat. Frantses ziurtagiria indarrean jarri zuten eta, borondatezkoa izanda ere, hango enpresen %75ek ziurtagiri hori eskuratzea lortu zuen. Kontua da Gobernuak sail eta udal guztiek euren ziurtagiri hau eskatzen hasi zirela diru laguntzak eta lizentziak ematerakoan (enpresak sortzeko, teknologia hobetzeko, enpresak handitzeko...), edo zerbitzu eta produktuak kontratatzerakoan (lan publikoak, hornikuntza orokorra...), etab.

Hemen ere gauza bera egiten ez badugu, euskara ez da enpresa munduan behar bezala normalizatuko. Lehenengo 3 urtetan euskara baloratu eta ondoren, derrigorrezkoa jar liteke hainbat irizpide kontuan hartuta: erabiltzaile kopurua, ingurune geografikoa, zerbitzua-aren izaera (kontuan hartu behar da Jaurlaritzak enpresa asko homologatzen dituela zerbitzu publikoa eman dezaten: igogailuak, ibilgailuen azterketa teknikoa,...). Zerbitzu publikoa ematen ez den kasuetan euskara beti baloratu: SPRIren diru laguntzetan, enpresa berriak sortzeko laguntzetan,...

- **Elkarlana.** Lan munduan eragina duten agente guztiak elkartu beharko ginateke fundazio edo egitura batean: euskara planak dituzten enpresak, enpresari elkarteak, merkataritza ganberak, sindikatuak, Administrazioa (Lan eta Industria Sailak...), Kontseilua, aholkularitza enpresak, Hobetuz...

Hainbat sektoretan elkarlana egon izan da: ikastolen artean, ikastetxeen artean, hedabideen artean edo eta euskaltegien artean. Bada ordua lan mundua euskalduntzeko, sektore gisa antolatzeko eta denon artean elkarlanak bideratzeko. Koordinazio honetan, administrazioak euskalduntzeko planen arduradunek ere egon behar dute, enpresa eta administrazioen euskara planak ongi uztartzeko.

- **Legeak hobetu eta daudenak betearazi.** EAEko Kontsumitzaileen Legeak hizkuntza eskubideak aitortu ditu lehendabiziko aldiz. Zoritarrez, Nafarroakota EAEko Euskararen Legeak zein Autonomi Estatutuek euskararen ofizialtasuna aitortuta ere, berauek guztiz garatzeko etorri behar ziren dekretuak ez dira heldu. Borondatea behar da lege hauek betetzeko eta, kontsumitzaileek hizkuntz urraketak salatzen badituzte, horiek konpontzeko neurriak jarri: enpresei ohartarazpenak bidali, jarraipena egin, etab.

- **Diru laguntzak handitu eta egokitzea.** Lan mundua euskalduntzeko erabiltzen den dirua handitzeaz gain, etekin handiagoa atera behar zaio. Egokiagoa litzateke diru laguntzak emaitzen arabera banatzea eta ez egingo diren ekintzen arabera.

Elkarlana. Lan munduan eragina duten agente guztiak elkartu beharko ginateke fundazio edo egitura batean: euskara planak dituzten enpresak, enpresari elkarteak, merkataritza ganberak, sindikatuak, Administrazioa (Lan eta Industria Sailak...), Kontseilua, aholkularitza enpresak, Hobetuz...

*Zaila ikusten dugu
administrazioko
esperientzietatik askorik
hartzea, gehienbat
hizkuntz gaitasuna landu
delako, hizkuntz
eskakizunen
derrigortasunaz
baliatuta, eta hori lan-
munduan nekez aplika
litekeelako. Erakunde
publikoak eredu izan
beharko lirateke zerbitzua
euskaraz eskaintzeko
orduan eta horrek bai
lagunduko lukeela
sozietate publiko
batzuetan eta zerbitzu
orokorrak eskaintzen
dituzten enpresetan
euskararen gaiari
garrantzi handiagoa
ematen.*

Adostasuna bilatu behar da eta eragileok batera jokatu. Irudi baten bitartez adierazita, elkarrekin arraun egitea komeni da hizkuntza berreskuratzeko estropada horretan, badirudielako aparteko ontzietan gabiltzala; eta ontzi berean ibili behar genuenok ere, zoritxarrez, nahiko deskoordinatuta aritzen gara batzuetan, batzuek *zia* eta besteak *boga*. Enpresaburuak, sindikatuak eta administrazioa hirurak dira giltzarri eta ezinbesteko; horregatik, helburuak eta estrategiak zehazteko denak elkartzea funtsezkoa da, Kontseiluak proposatutako fundazioan edota egokien ikusten den organoan.

Bukatzeko, eta Soziolinguistika Klusterrak eskaintzen duen aukeraz baliatuta, oro har arloarekin lotutako ikerketak bultzatu beharko lirateke —adibidez, lan-giroko harremanetan euskararen erabileran eragite duten arrazoiak aztertzea—, datozen 5 urte horietarako eta hurrengoetarako estrategiak findu eta hobeto zehaztu ahal izateko.■

gako nagusietako bat. Ondo legoke 5 urte barru 100 udalek eta aldundietako eta Jaurlaritzako 10 sailek hizkuntz irizpideak arlo guztietan ezarrita izatea.

- Elkarlana. Lan Mundua Euskalduntzea sektore gisa antolatu fundazio baten bidez.
- Legeak garatu. Katalunian enpresa handiei isunak jartzen hasi dira katalana aintzat har dezaten. Hemen ere hasi beharko dugu noiz edo noiz.
- Diru laguntzak handitu eta egokitu. Kopuruak handitu eta emaitzen arabera banatzea.
- Kontsumitzaile Euskaldunen Elkarte sortzea edota Kontseiluak norbanakoen konpromisoak gero eta gehiago izan daitezen bultzatzea.■

Σ Eskaera publikoa handitu. Erakunde publikoek ez badute Quebec-en bidea jarraitzen oso zaila izango da enpresetan euskarari dagokion garrantzia ematea. Hementxe dago enpresak euskalduntzeko gako nagusietako bat. Ondo legoke 5 urte barru 100 udalek eta aldundietako eta Jaurlaritzako 10 sailek hizkuntz irizpideak arlo guztietan ezarrita izatea.

ELHUYAR AHOLKULARITZA

Helbide elektronikoa: aholkularitza@elhuyar.com

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Lan-munduan euskararen erabilera areagotzen jarraitzeko ez dugu ikusten, berez, ezer aldatu beharko litzatekeenik; alegia, azken urteotan hartutako bideari jarraituko bagenio ere, pixkanaka erabilera-planak gehitzen joango liriatekeela uste dugu, dozena izatetik 120 izatera igaro diren bezalaxe. Euskarak arlo sozioekonomikoan duen egoera orokorra geure aldeira irauli eta prozesua benetan indartu nahi bada, ordea, gauza asko aldatu beharko liriateke, zalantzarik gabe. Batez ere, hizkuntz politika ausartago bat behar dugu, epe ertain edo luzerako helburu batzuk eta balizko egoera bat irudikatuko dituen. Hasteko, garrantzitsuena iruditzen zaigu giro edo baldintza orokor egokiak sortzea, hau da, enpresaburuak eta langileak —sindikatuaren bitartez, neurri batean— jabetzea zein funtsezkoa den arlo sozioekonomikoan euskarari tokia egitea. Horretarako, ezinbestekoa da erakunde publikoen babes eta inplikazio handiagoa lortzea, normalizazioa sustatu eta jarduera horiek diruz lagundu ditzaten. Azken puntu horri dagokionez, partidak handitu eta laguntzak eskuratu ahal izateko tramiteak erraztea ere komeniko litzateOrain artean gutxien landu den sektorea enpresaburuena izan da. Oso zaila da bat-batean dena goitik behera aldatzea, baina Kalitatearen eta Ingurumenaren kudeaketarekin egin den bezalaxe, diskurtso erakargarri bat landu eta adierazi behar zaie heldu beharreko gaia dela. Jarrera irekiago bat lortuta, helburu mailakatuak eta lorgarriak jarri beharko liriateke ondoren, pixkanaka planetara erakarri eta normalizazio-neurriak hartzera bultzatuko litzuketanak.

Sindikatuetakoa ordezkariek ere egiteko garrantzitsua bete beharko lukete giroa sortzeko lan horretan. Sindikatu batzuetako arduradunek konpromisoak hartu izan dituzte euskara bultzatzeko, baina agian mezu hori ez da behar bezain argi iritsi lantokietan aritzen diren ordezkar horiengana. Lantokiko nagusi eta arduradunei eskakizunak egin eta kontu batzuk negoziatzea beharrezkoa da, baina erabilera-planak zer diren jakitea ere bai, ikus dezaten ahalegin eta konpromiso handia eskatzen duen kontua dela.

Langileak oro har kontzientziaztea ere komeni dela iruditzen zaigu, gazteak gehienbat. Lanbide Heziketa euskalduntzeko asko falta den arren, duela urte batzuk baino prestatuago iristen dira gazteak lan-mundura hizkuntz gaitasunari dagokionez, eta lanean hasitakoan ahal duten neurrian euskarari eusteko eta normal erabiltzeko eskatu behar genieke. Neurri batean, gizarte-mailan ere normalizat hartu beharko genuke euskara *exijitzen* hastera, lurralde gehienetan euskara hizkuntza ofiziala eta berezko izaera duena den aldetik.

Erabilera-planak egokitzeari buruz, bestalde, ez dugu uste asko aldatu beharko liratekeenik. Azken urteotan, metatutako esperientzien ondorioz, hainbat gauza doitu eta hobetu ditugula uste dugu eta planek gero ere balioko dutela iruditzen zaigu, enpresa eta erakundeen tamaina eta ezaugarrietara egokitzeko bezain prozesu malguak direlako. Enpresakopurua handitzeak, gainera, planak eta lanak sistematizatzea erraztuko luke eta horrekin lehendik dauzkagun tresnak indartzea.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Zaila ikusten dugu administrazioko esperientzietatik askorik hartzea, gehienbat hizkuntz gaitasuna landu delako, hizkuntz eskakizunen derri-gortasunaz baliatuta, eta hori lan-munduan nekez aplikatu litekeelako. Erakunde publikoak eredu izan beharko lirateke zerbitzua euskaraz eskaintzeko orduan eta horrek bai lagunduko lukeela sozietate publiko batzuetan eta zerbitzu orokorrak eskaintzen dituzten enpresetan euskararen gaiari garrantzi handiagoa ematen.

Hezkuntza-mundutik egon litezke zenbait kontu esportagarri, ikastetxeetan azken urteotan hainbat esperientzia interesgarri egin izan direlako. Esate baterako, neurri batean hainbat ikastetxe euskaraz funtzionatzen duten erakunde edo komunitate batzuk ere badirela esan dezakegu.

Merkataritza-planak herri askotan egin izan dira eta esperientzia batzuek balio lezaketek, adibidez, enpresa txikietarako planak proposatzeko orduan.

Lan-munduko planetatik, berriz, azpimarratzekoa izan liteke parte hartzen duten langileen inplikazioa, beste arlo batzuetan lortzeko hain zaila gertatzen dena.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Sustapenari pisu handia eman beharko litzaiokeela uste dugu, horrela enpresa askoz gehiago sar daitezkeen erronka honetan, batez ere zerbitzu alorrekoak. Lehendik dauden plan orokorrak ere baliatu beharko lirateke horretarako: EBPN —udalerrri eta eskualde mailako planetan ere arlo sozioekonomikoari tarte handiagoa eskainita—, Kontseiluaren planak eta kanpainak, etab. Orain planetan dihardutenak baino enpresa txikiagoetara iritsi eta haietan eragitea ere lortu beharko litzateke, bide batez.

Administrazioak urrats sendoagoak egin beharko litzuzke benetan euskalduntzeko eta gainerako erakundeentzat eredu izan dadin. Hizkuntz politika indartsuago baten ezartzearen haritik, lege aldetik ere orain daudenak baino askoz gauza gehiago arautu beharko lirateke, katalanen ereduari jarraituta; esaterako, 2003an Kontsumitzailearen legea onartu zen, baina oraindik ez dira hura betearazteko estrategiak zehaztu eta martxan jarri.

Hasteko, garrantzitsuena iruditzen zaigu giro edo baldintza orokor egokiak sortzea, hau da, enpresaburuak eta langileak —sindikatuaren bitartez, neurri batean— jabetzea zein funtsezkoa den arlo sozioekonomikoan euskarari tokia egitea. Horretarako, ezinbestekoa da erakunde publikoen babes eta inplikazio handiagoa lortzea, normalizazioa sustatu eta jarduera horiek diruz lagundu dituzten. Azken puntu horri dagokionez, partidak handitu eta laguntzak eskuratu ahal izateko tramiteak erraztea ere komeniko litzateke.

Orain arte ez da koordinaziorik egon administrazioen eta enpresen euskara planen arduradunen artean. Ondo legoke harreman handiagoa izatea baliabide batzuk konpartitzeko: ebaluazio sistemak, prestakuntza ikastaro zehatzak, motibazio ekintza bateratuak, etab.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Administrazioen eta enpresen euskara planak arlo askotan bide beretik doaz: diagnostikoak, prestakuntza, metodologia, motibazio ekintzak, corpus laguntzak, etab.

Orain arte ez da koordinaziorik egon administrazioen eta enpresen euskara planen arduradunen artean. Ondo legoke harreman handiagoa izatea baliabide batzuk konpartitzeko: ebaluazio sistemak, prestakuntza ikastaro zehatzak, motibazio ekintza bateratuak, etab.

Badira desberdinak diren arloak ere:

- Euskararen ezagutza. Enpresa gutxitan ezarri dira administrazioan dauden hizkuntza eskakizunak. Normalean ahozko eta idatzizko maila baino ez da zehazten. Horrela, ahozko harremanak daudenean berba egiteko eskatzen dute: saltzaileak, harrera lanpostuak... Eta, beste kasu batzuetan idazten ere jakitea: komertzialak, administrazio-oko langileak, etab. Euskara planak maila altuenetara heltzen direnean edo lanpostu berezietan, euskarak ere maila altua eskatzen du: teknikariak, euskalgintzako enpresak,...
- Baliabideak. Enpresetan ez dago administrazioak duen giza eta ekonomi baliabiderik. Horregatik, enpresa gehienetan euskara ikasten ari diren langileek lanorduz kanpo egiten dute. Edo diru aldetik, diru laguntzarik jasotzen ez badute, enpresak berak jarri behar du dirua euskara plana aurrera ateratzeko. Gainera, enpresa handiek beti aukera eta baliabide gehiago dute horrelako proiektu handietan sartzeko baina maila txikiko agenteek (dendariek, profesionalak, autonomoek, enpresa txikiek) zailago izaten dute.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Lehenengo galderan zehaztu den moduan, datozen 4-5 urteetarako zazpi erronka ditu lan mundua euskalduntzeko sektoreak:

- Bai Euskarari Ziurtagiria. Urtero 700 ziurtagiri gehiago banatzea izango litzateke helburua, 2010ean 5.000 erakunde eta enpresara heltzeko.
- Eskaera pribatua handitu. Euskalgintzako erakundeek eta enpresek eskaera bizkortzeko ekintzak eta kanpainak bultzatu beharko lituzkete, aitzindari lana eginez. Ezinbestekoa litzateke ere, ziurtagiria duten erakundeek euren hornitzaileei gauza bera eskatzea, biderkatze efektua sorraraziz.
- Eskaera publikoa handitu. Erakunde publikoek ez badute Quebecen bidea jarraitzen oso zaila izango da enpresetan euskarari dagokion garrantzia ematea. Hementxe dago enpresak euskalduntzeko

*LABek lan munduan
euskara berreskuratzeko
eta sustatzeko ahalegin
guztiak egingo ditu.
Dagoeneko martxan
dagoen ekimen
garrantzitsuenetarikoa
Kontseiluarekin
sinatutako Akordio Sozio
Politikoa dugu. Horren
haritik, euskararen aldeko
konpromiso kanpaina
burutzen ari da mila
enpresa baino gehiagotan,
langileen, komitearen eta
enpresarien akordioa
bilatuz. Horrez gain,
enpresen normalizazio
planak bultzatzeko eta
hedatzeko asmoa dugu.*

langileen, komitearen eta enpresarien akordioa bilatuz. Horrez gain, enpresen normalizazio planak bultzatzeko eta hedatzeko asmoa dugu. Lanketa bi modutan planteatzen dugu:

Bat, euskararen garapenarako eskaera soziala indartzea izango da. Eskaera honen bitartez enpresek duten jendarte erantzukizuna aldarrikatu nahi da, bi zentzutan; alde batetik, enpresen erantzukizuna hizkuntzan, ekologian, emakume eta gizonen aukera berdintasunean eta garapen sostengarrian, lagundu ala oztopatu dezaketen jendarte eragile garrantzitsu gisa. Bestetik, enpresen erantzukizuna eskaera sozialaren aurrean.

Bi, eskualde, sektore zein lantokiz lantokiko egoera eta LABen ordezkariak kontuan hartuta, gure militanteekin planak proposatzeko ekimenak lantzea da.

Hiru, eragileen arteko euskararen normalizaziorako akordioak bultzatzea da, alegia, euskararen sustapenerako konpromiso eta estrategiak adostea.

Amaitzeko ezin ahantzi administrazio eremuetan dugun erronka Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna eta hizkuntza eskubideak aitortu eta egikaritu daitezen.■

Eragileek bat egitea gaiaren inguruan ekimen bateratuak bultzatzeko: administrazio publikoa (gobernuak, foru aldundiak eta udalak); kooperatibak, sindikatuak eta ugazabak; arloko aholkularitza enpresak; irakaskuntza eta ikerketa guneak (lanbide heziketakoak, unibertsitateak, Soziolinguistika Klusterra, Ezagutzaren Clusterra...); euskalgintza (herrietako euskara elkarteak, Kontseilua...).

izan dira eta administrazio askotan, hutsuneak hutsune, normala da gaur egun euskarazko zerbitzua jasotzea.

Enpresa pribatuetako euskara planetatik ere badago zer ikasia, berri-agoak izan arren:

- Zenbait planetan lortu den dinamismoa eta erakundeen inplikazioa eredugarria da, eta sarritan lotuta dago erakundeen antolamendu eta funtzionamenduarekin.

- Planak inplementatzean dinamizatze erabilitako teknikak batez ere erabilera eta motibazioa bultzatzeko.

- Plangintza eta jarraipena egiteko erabilitako metodologiak oso lotuta daude (ez nahi beste oraindik ere) enpresetan erabiltzen diren gestio sistemekin (adibidez, kalitate sistemekin)

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Aurreko guztiak kontuan hartuta, lanik ez dugu falta hurrengo 4-5 urterako; hona batzuk:

- Eragileek bat egitea gaiaren inguruan ekimen bateratuak bultzatzeko: administrazio publikoa (gobernuak, foru aldundiak eta udalak); kooperatibak, sindikatuak eta ugazabak; arloko aholkularitza enpresak; irakaskuntza eta ikerketa guneak (lanbide heziketakoak, unibertsitateak, Soziolinguistika Klusterra, Ezagutzaren Clusterra...); euskalgintza (herrietako euskara elkarteak, Kontseilua...).

- Zenbait enpresatan euskara planei esker lortu direnei eustea: euskara erabiltzearen aurkako erasoei aurre eginda eta globalizazioaren ondoriozko enpresen nazioartekotzea kontuan hartuta; horretarako, besteak beste, babes politiko handiagoa beharko da inork ez dezan enpresarik zigortu euskaraz egiten duelako.

- Zenbait enpresa erreferente euskara planetan sartzea garrantzitsua izango da, tartean kanpoko enpresak ere bai; horretarako, enpresa horiek euskarara hurbiltzeko lana egin beharko da euskalgintzatik eta administrazio publikotik.

- Enpresa berriei sortu orduko euskara kontuan har dezaten bermatzea, hau da, prebentzio lana egitea.

- Euskaraz egiten duten enpresei errekonozimendua eta prestigioa ematea, inguruko enpresentzat ere erreferente bilaka daitezen.

- Kontsumitzaileen eta langileen hizkuntza eskubideak bermatzeko lan egitea; aurretik esan den moduan, horrek lege babesa eskatzen du alde batetik, baina oso garrantzitsua da eskubideei buruzko kontzientzia zabaltzea euskararen eskaria askoz ere handiagoa izan dadin.■

ROBER GUTIERREZ

Bai Euskarari Ziurtagiriaren arduraduna
Helbide elektronikoa: rober@kontseilua.org

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Azken hamarkadetan euskara esparru berriak irabazten edota berreskuratzen ari da; horren isla dugu helduen euskalduntzean, hezkuntzan, komunikabideetan, kulturean, administrazioan eta abarretan ematen ari diren urratsak. Hala ere, urrats horiek gizartean behar besteko eraginik ez izateko arriskua dago, datozen urteotan lan munduan ere euskararen erabilera areagotu ezean.

Lan munduaz baino, arlo sozioekonomikoaz areago hitz egin behar genuke eta horren barruan dauden lan-jardueraz: finantzak, aseguruak, denda kateak, komertzioa, ostalaritza, nekazaritza, elkargo profesionalak, sindikatuak, enpresa elkarteak, etab. Horiek euskara gehiago erabil dezaten, oinarritzkoa da beren jardueran euskararen erabilera areagotzeko ekarriko lizkiekeen abantailaz jabetzea eta erabilera hori areagotzeko dituzten zailtasunei erantzun egokiak bilatzea.

Enpresen erantzukizun sozialaren kontzeptuak berebiziko garrantzia du horretan, izan ere, Euskal Herriko lan jarduera guztietako enpresek, errotuta dauden gizartearen nahi eta beharrekin bat egiten jakin behar dute eta faktore hori baliatu behar dugu euskararen normalizazioaren prozesuan. Lan jardueretan euskararen erabilera areagotzeko abantaila handiak ditu, hala nola enpresa kokatuta dagoen eremuan txertatzeko egokitasuna, lehiakortasunerako giltzarritzko faktorea izatea, bezeroak hobeto hartzeko aukera garatzea, langileriak eta zuzendaritza taldeak motibatuzko eta euskaraz lan egiteko aukera ezartzea, kalitatearen parametroak aintzat hartzea, etab. Abantaila horiek egoki komunikatzea eta ezagutaraztea ezinbestekoa da euskarak arlo sozioekonomikoan aurrera egingo badu eta horixe da hain zuzen ere Bai Euskarari Ziurtagiriaren egitekoa.

Bai Euskarari Ziurtagiriak euskararen normalizazioaren alde egiteko borondatea erakusten du, horretarako enpresa jakin batek neurri zehatzak hartu dituela adieraziz. Bai Euskarari Ziurtagiria duten enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak euskararen normalizazioaren aldeko neurriak garatzen ari direla kreditatzen du Kontseiluak. Horrela, horien ahalegina aitortu eta aldi berean konpromiso hori jende aurrean erakusteko bereizgarria ematen die. Kontseiluaren iritziz, arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko, horretan diharduten edo hartan eragina izan dezaketen eragileak (sindikatuak, administrazioa, enpresak, euskalgintza...) Bai Euskarari Ziurtagiriaren hedapenean inplikatzeko ezinbestekoa da.

Lan jardueretan euskararen erabilera areagotzeko abantaila handiak ditu, hala nola enpresa kokatuta dagoen eremuan txertatzeko egokitasuna, lehiakortasunerako giltzarritzko faktorea izatea, bezeroak hobeto hartzeko aukera garatzea, langileriak eta zuzendaritza taldeak motibatuzko eta euskaraz lan egiteko aukera ezartzea, kalitatearen parametroak aintzat hartzea, etab. Abantaila horiek egoki komunikatzea eta ezagutaraztea ezinbestekoa da euskarak arlo sozioekonomikoan aurrera egingo badu eta horixe da hain zuzen ere Bai Euskarari Ziurtagiriaren egitekoa.

Ildo horretan, lan munduaren euskalduntzea bizkortzeko helburuarekin Euskal Herri mailako fundazio bat sortzeko proposamena ageri da akordioaren testuan, sindikatuak, patronala, kooperatiben mundua, instituzioak eta euskalgintza bilduko dituen. Diru baliabide egokiz hornitu beharko da eta lan munduaren euskalduntzeari begira jardun beharko du normalizazio planak bultzatuz, bidea errazteko neurriak proposatuz eta prozesuaren balantzea eginez.

Hainbat elkarte eta enpresa ari dira arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean lanean, bereziki lantegi mailako hizkuntz normalizazio planen diseinuan eta inplementazioan. Berebiziko lana burutzen ari da alor horretan. Administrazioak ere badu bide bat egin, batez ere plan horien finantzazioan. Azkenik, batez ere enpresa eta kooperatibetako langile, sindikatu eta enpresariak egindako lana nabarmendu beharra dago, beraiek baitira lan munduaren euskalduntze prozesu honen eragile nagusiak. Urtetako lanak hainbat irakaspen utzi digu enpresen funtzionamenduari, lehentasunei eta euskararen erabilerak dakartzkien zailtasun eta abantailei buruz. Euskara planek arlo sozioekonomikoan arrakasta izango badute, gero eta gehiago moldatu beharko dira baldintza horietara, euskararen erabilera enpresaren lehentasunen artean sartzeko.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Adierazgarria da indarrean dauden planen artean lotura handirik ez egotea, gainerako sektoreetan islarik ez duten ahalegin isolatuak baliran. Horri aurre egiteko, plangintza orokor bat ezinbestekoa da, arlo guztiak kontuan hartuko dituen eta arloen arteko harremanak, segimendua, doikuntza eta koherentzia ahalbidetuko dituen.

Arlorik garatuena hezkuntzarena da, baina urte luzeetan egindako ahaleginak ez du segimendurik gainerako arloetan (kulturan, enpresa munduan...). Plangintzaren ikuspegitik arlo sozio-ekonomikoa zaindu beharreko eremua da, garrantzia erabatekoa baitu euskararen normalizazio bidean. Gure bizitzaren herena lanean ematen baitugu eta gainerako arloetan egindakoa eta lortutakoa indartzeko baliagarria izan baitaiteke. Lan mundura iritsi aurretik hezkuntzan eta norberaren bizitza pertsonalean egindako lan eskerga galtzeko arriskua egon daiteke. Arlo sozioekonomikoan eragin ezean, gainerako arloetan lortutakoa zalantzan jar daiteke eta euskal hiztunak erdalduntzeko eremu bilaka daiteke.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sustatu duen "Euskara sustatzeko eta euskalgintza babesteko Akordio Soziopolitiko"n ageri den bezala, euskararen normalizazio prozesuak une erabakigarriak bizi ditu azken bolada honetan. Euskararen normalizazioak bultzada berri eta biziagoa izan dezan beharrezkoak diren ekimen politiko, instituzional eta sozialak indarrean jarri behar dira; lehenik, gaur egungo proiektu eta programak indarberrituz eta hobetuz; bigarrenik, ofizialtasunaren garrantzia eta hizkuntz eskubideen bermea lurralde osoan ekarriko duten neurri legalak bultzatuz; hirugarrenik, normalizaziorako estrategikoak diren proiektu berriak abian jarritz; laugarrenik, geure erakundeetan barne euskalduntze politika eraginkorrak sustatuz; eta azkenik, erabakimenik ez

dugun instituzio eta erakundeetan euskararen alde aipaturiko neurriak har daitezten eraginez, eta horretarako egitasmoak bultzatuz.

Ildo horretan, lan munduaren euskalduntzea bizkortzeko helburuarekin Euskal Herri mailako fundazio bat sortzeko proposamena ageri da akordioaren testuan, sindikatuak, patronala, kooperatiben mundua, instituzioak eta euskalgintza bilduko dituena. Diru baliabide egokiz hornitu beharko da eta lan munduaren euskalduntzeari begira jardun beharko du normalizazio planak bultzatuz, bidea errazteko neurriak proposatuz eta prozesuaren balantzea eginez.

Administrazioek, bidenabar, trakzio lana egin beharko lukete eta zerbitzu publikoak emateko kontratatzen edo homologatzen dituzten enpresei, ahozko eta idatzizko zerbitzua euskaraz ematea eskatu beharko liekete. Neurri hau aplikatzen hasteko denboran zehar epe zehatzak izango dituen plangintza ezarri beharko genuke egoera soziolinguistiko eta legalaren arabera urrats bat baino gehiago izango dituena.

Azkenik, ezaguna da azken urteetan arlo sozialean Kontseilua egiten ari den lana. Lan munduan ere izan du eragina jardun horrek, eta bereziki nabarmentzekoak dira *Bai Euskarari Ziurtagiriaren* bitartez normalizazioan aurrera egiteko zabaldu diren aukerak. 2005eko udazken honetan, gainera, "Enpresan Bai Euskarari" izeneko ekimena jarriko da abian ahalik eta enpresa gehien euskararen aldeko konpromisoetara erakartzeko.

Datozen urteetan gizartea aktibatu behar da, euskararen aldeko giro soziala sortu behar da, euskararen erabilera areagotzea eskatuko duena. ■

Datozen urteotako lanerako mugarrak jarrita daude, beraz, eta horiek ahal den sendotasun, eraginkortasun, hedakortasun eta sistematikotasun handienaz inplementatzen jarraitzea izango da, besteak beste, eginbehar nagusietako bat. Baita horien guztien eraginkortasuna eta baliozkotasuna xehe ebaluatzea ere, berariaz prestatutako ebaluazio-sistemaren bitartez.

MIREN MATEO

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Helbide elektronikoa: hizkpol@ej-gv.es

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Aldaketak baino, gure ustez helburuak, jomugak ondo bereiztea-lehenes-
tea, eta ondoren horietara jotzeko lan-proiektuak nahiz baliabideak abian
jartzea eta bideratzea da gako nagusietako bat. Baina horretarako beha-
rrezkoa da, gure ustez, behar bezala balioztatzea zer egin den azken
hamabost urteotan alor sozio-ekonomikoan, noraino iritsi garen, nora jo
nahi dugun, eta ea hori lorgarri bezain bideragarri ote den euskal lurral-
de guztietan.

Eusko Jaurlaritzak, EABren eskutik, egina du programa horren gai-
neko hausnarketa, balorazioa, eta hortik abiatuta, etorkizunerako lan-
ildoen definizioa. Horiek guztiak bilduta eta eskuragarri dituzu, irakur-
le, “Esparru sozio-ekonomikoan euskara biziberritu eta hizkuntza-normalizazio-
rako hurbilpen sistematikoagoa eta eraginkoragoa izateko irizpideak eta strate-
giak deritzan argitalpenean¹. Datozen urteotako lanerako mugarrak jarri-
ta daude, beraz, eta horiek ahal den sendotasun, eraginkortasun, heda-
kortasun eta sistematikotasun handienaz inplementatzen jarraitzea izan-
go da, besteak beste, eginbehar nagusietako bat. Baita horien guztien era-
ginkortasuna eta baliozkotasuna xehe ebaluatzea ere, berariaz prestatuta-
ko ebaluazio-sistemaren bitartez, eta hizkuntza-politika orokorki ebalua-
tzeko egin beharreko saioaren baitan.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Bai herri-administraziokoak, bai lan-mundukoak, biak dira funtsean eus-
kara-planak; biak dira erakunde jakin batean euskararen erabilera area-
gotzeko eta errotzeko ekimen planifikatuak. Legea eta berau gauzatzetik
sortutako ondorioak dira bi esparruon arteko alde nagusia —ez bakar-
ra, ordea—, euskara-planen taxuketari eta aplikazioari dagokionez. Bi alo-
rren arteko hartu-eman eta interakzioa, udal eta gainerako administra-
zioetako erabilera-planak abian jarritz geroztik ari da gertatzen, eta ez da
berritasuna. Besterik da ordea, hartu-eman hori metodologiaz gain, ez
ote litzatekeen beste gai komun batzuetara zabaldu beharko, hala nola,
tokian tokiko gutxieneko helburuak edota ebaluazio-adierazle alderaga-
rriak finkatzearenera. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, bi alor
hauen arteko interakzio eta osagarritasunaz jabetuta, hainbat neurri jarri-
ko ditu abian bi alor hauetan emango diren aurrerapausoak bietan ete-
kin-iturri izan daitezten.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Lehenengo galderari emandako erantzunean esan dugunez, Euskararen Aholku Batzordeak finkatuak ditu datozen urteotarako jomuga nagusiak, honako hauek, labur-labur:

- Euskara-plana abian duten enpresen kopurua handitzea: enpresa handi, ertain eta txiki gehiagok euskara-planak martxan jartzea, esparru honetan masa kritiko bat osatze aldera.
- 6/2003 Legea oinarri hartuta, esparru sozio-ekonomikoaren baitan, merkataritza-ostalaritza (saltoki handiak eta frankiziak barne) lantzeko lan-lerroa garatzea; baita finantza-aseguruena ere.
- Euskara-planak berak prozesu metodologiko gisa berrikustea eta egokitzea.
- Euskara-planak garatzeko zerbitzu zein baliabideen eskaintza areagotzea.
- Agente sozio-ekonomikoen inplikazioa areagotzea.
- Herri-administrazioen parte-hartze koordinatua bultzatzea.
- Lege-garapenez hornitzea.
- Lanbide-heziketan eta etengabeko prestakuntzan euskarazko eskaintza areagotzea.

Esan gabe doa epigrafe bakoitzaren pean bigarren mailako helburuak daudela, hemen azaldu ez ditugunak luzeegi joko lukeelakoan. Esan bezala horien berri izan nahi duenak euskadi.net-eko webgunean eskuratuko du EABk landutako gomendio-sorta osoa.■

OHARRA

1. Argitalpen hau eskuratzeko jo http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adjuntos/esparru_sozio_eko.pdf helbide elektronikora.

*Bi alorren arteko hartu-
emana eta interakzioa,
udal eta gainerako
administrazioetako
erabilera-planak abian
jarriz geroztik ari da
gertatzen, eta ez da
berritasuna. Besterik da
ordea, hartu-eman hori
metodologiaz gain, ez ote
litzatekeen beste gai
komun batzuetara
zabaldu beharko, hala
nola, tokian tokiko
gutxieneko helburuak
edota ebaluazio-adierazle
alderagarriak
finkatzearenera.*

Beharrezkoa ikusten dut euskararen gizarte-ospe eta erakargarritasuna sendotzea. Euskara erabiltzeko onarpenak orain dena baino handiagoa izan behar du, enpresa euskararen normalkuntzara bilduko bada. Enpresaria eta langileak mugitzeko, beste sektoreetan ere gauzak mugitzen direla ikusi behar dute. Euskararen aldeko eredu onak, koherenteak, gizartearen agerian izan behar dituzte.

UDAL TEKNIKARIAK

Nekane Goikoetxea

Andoaingo Euskara Teknikaria

Helbide elektronikoa: eteknikaria.andoain@udal.gipuzkoa.net

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Erantzun erraza badirudi ere, uste dut lan-munduan kualitatiboki aurrera egiteko, giro soziala dela aldatu behar dena. Azalduko dut: beharrezkoa ikusten dut euskararen gizarte-ospe eta erakargarritasuna sendotzea. Euskara erabiltzeko onarpenak orain dena baino handiagoa izan behar du, enpresa euskararen normalkuntzara bilduko bada. Enpresaria eta langileak mugitzeko, beste sektoreetan ere gauzak mugitzen direla ikusi behar dute. Euskararen aldeko eredu onak, koherenteak, gizartearen agerian izan behar dituzte. Bigarren galderarekin sakonduko dut azken ideia honetan.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Udal administrazioa ekarri erantzuna, sektore honen oinarriko erakutsietatik bi aipatu nahiko nituzke:

Batetik, eskarmentua dugu udal administrazioko euskara planetan. Legearen babesarekin, erabilera formalean aurrera egin dugu, zerbitzu-hizkuntzari dagokionez batez ere. Herritarrak artatzerakoan hutsuneak ditugun arren, langilegoa prestatu dugu eta hizkuntza irizpidez jokatzeko dugu. Ezin da, ordea, horrelakorik esan lan-hizkuntzari dagokionez. Eskarmentuak erakutsi digu zein garrantzitsuak diren euskara planez kanpoko faktoreak eta, beraz, neurriko helburuak ezartzearen garrantzia. Ditugun aukera errealak ekarri behar ditugu helburuetara, ez besterik. Enpresetako planetan hori gogoan edukitzea, are beharrezkoagoa ikusten dut.

Bestalde, enpresetako planetan enpresariak eskatzen duen eragin-kortasuna nahiko nuke udal administrazioan ere eskatuko baligute. Ez ditut aipatu gabe utzi nahi, administrazioko zenbait euskara planetan izan diren eskandaluzko porrotak. Ikaragarria da honelakoek giro sozialean duten eragina. Jendeak ikusten du datu objektibotan neurtutako porrota izanda ere, ez dela ezer gertatzen. Horrekin lotzen dut administrazioan izandako eskarmentuaren bigarren erakutsia.

Aipatu dut zerbitzu-hizkuntzan eta erabilera formalean egin diren aurrerapenak askoz ere motelagoak direla lan-hizkuntzari dagokionez. Zergatik? Zenbat agintarik egin du urrats pertsonalik euskararen erabileraren alde? Zenbat aldiz izan dira agintariak oztopo lan-hizkuntzari dagokionez? Hitz batean, administrazioko langilegoari eskatu zaion aha-

leginak, ez du askotan islarik izan etxeko nagusien aldetik eta neurri batean goia jo dute gure planek. Dударik gabe, laissez faire jokaera horrek giro sozialean duen eragina guztiz negatiboa da. Beraz, gizarte mailan jarrera koherenteak ongi sozializatetik lortuko dugu aurrerapena beste sektoreetan ere. Bada lezio ederrik eman duen enpresaririk!

Lan-munduan ez dago euskaren sustapena agintzen duen legerik. Euskal Herriko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua arautzen duen 6/2003 Legearen garapenetik etor daitezkeen aurrerapen mugatuetatik at, enpresariaren borondatean dago gakoa. Hizkuntza-ohituren aldaketa egiteko gogoia behar du, hortaz. Gainera, aldagetari erabilgarria iritzi behar dio. Eta neurriko ahalegina eskatu behar zaio.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Udal administratziotik begira, aparteko garrantzia emango nioke lan mundua euskalduntzeko sektorean diharduten aholkularitza-enpresen arteko lankidetzat bultzatzeari.

Gainera, berrikusi beharko litzateke zein den eragile bakoitzaren eginbeharra sektore honi begira. Administrazioak sektorearen sustapen lana bere gain hartu behar ote duen argitu beharko genuke denon artean. Horretarako, ordea, euskalgintzan askotan gertatzen den sinergia falta saihestu beharko genuke.■

Eli Payros

Bergarako Euskara Teknikaria

Helbide elektronikoa: epayros@bergara.net

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Uste dut motibazioa izan daitekeela aldatu edo gehiago landu beharreko zerbait. Lan arloan segurtasuna, formazioa... eskatzeko sentsibilizatuta gaude eta hizkuntzarekiko sentsibilizazio edo motibazio-kolektibo bera lortu beharko genuke.

Euskara-planetan ere uste dut, motibazioaren arloa izango dela gehien landu beharreko gaia, hasierako bultzada pasa ondoren, ezinbestekoak baitira norbanakoen motibazioa lantzeko eta mantentzeko teknikak.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Bizitzako esparru desberdinak lotuta daudenez, denok dakigu esparru batean ezartzen diren planek hizkuntza normalizatzeko beste esparruetan eragiten dutela. Horren adibide da, esaterako, irakaskuntza euskal-

Zenbat agintarik egin du urrats pertsonalik euskararen erabileraren alde? Zenbat aldiz izan dira agintariak oztopo lan-hizkuntzari dagokionez? Hitz batean, administrazioko langilegoari eskatu zaion ahaleginak, ez du askotan islarik izan etxeko nagusien aldetik eta neurri batean goia jo dute gure planek. Dударik gabe, laissez faire jokaera horrek giro sozialean duen eragina guztiz negatiboa da. Beraz, gizarte mailan jarrera koherenteak ongi sozializatetik lortuko dugu aurrerapena beste sektoreetan ere. Bada lezio ederrik eman duen enpresaririk!

Denok dakigu esparru batean ezartzen diren planek hizkuntza normalizatzeko beste esparruetan eragiten dutela. Horren adibide da, esaterako, irakaskuntza euskalduntzeko planen (lanbide heziketakoak, batez ere) eta lan-munduko planen arteko lotura, ezin bestekoa baita irakaskuntzan lortutako emaitzak jarraipena izatea lan-munduan. Halaber, administrazioa euskalduntzeko planen bidez hizkuntza-irizpideak ezartzen bazaizkie azpikontratatzaren diren enpresei, hornitzaileei... administrazioari planak lan munduan eragiten ari dira.

duntzeko planen (lanbide heziketakoak, batez ere) eta lan-munduko planen arteko lotura, ezin bestekoa baita irakaskuntzan lortutako emaitzak jarraipena izatea lan-munduan. Halaber, administrazioa euskalduntzeko planen bidez hizkuntza-irizpideak ezartzen bazaizkie azpikontratatzaren diren enpresei, hornitzaileei... administrazioari planak lan munduan eragiten ari dira.

Bestalde, metodologia aldetik, planak ez dira hain desberdinak. Lan-mundua, esparru konplexua da eta bertan aplikatzen diren teknikak eta metodologiak guztiz baliagarriak dira beste esparruetarako.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Alde batetik enpresa berriak animatu behar dira euskara-planak martxan jartzera, planak dituztenak dezente diren arren, beste askok ez dutelako oraindik inolako urratsik eman arlo honetan.

Halaber, bide honi ekiten dioten enpresek jakin behar dute hizkuntza normalizatzeko lanak luzeak direla eta ez direla 2-3 urtetan bukatzen. Euskara-planak aholkularitza-enpresen bidez landu arren, euskara-planak eta enpresaren gestio plana ezin dira paraleloak izan, euskararen eta enpresaren bertan erabiltzen diren beste hizkuntzen gaia, enpresaren gestio-planetan txertatu behar da.

Bestalde, ezin bestekoa da Lanbide Heziketa euskalduntzen jarraitzea eta honez gain benetan garrantzitsua izango litzateke lan munduan euskararen normalizazioaz aritzeko entitate instituzional espezifikoko bat sortzea.■

Maite Alvarez de Zarate

Bermeoko Euskara Teknikaria

Helbide elektronikoa: euskera@bermeo.org

1. GALDERAREN ERANTZUNA

Lan munduan Euskararen Erabilera Planek arrakasta izan dezaten ezin bestekotzat ikusten dut plan hori enpresaren Plan Estrategikoan eta urteko Kudeaketa Planean txertatuta izatea, enpresaren beste lan ardatz baten gisa.

Euskara Planari bere garrantzia, estatusa eta prestigioa eman behar zaio enpresaren barruan. Euskara gai *garrantzitsua* bilakatu behar da enpresarako, barruko zein kanpoko jardunean.

Euskara Planak enpresaren jardun luze-zabala hartu behar du: langileen kontratazioarako eta prestakuntzarako hizkuntza irizpideak, hizkuntza paisaia, informatika-programak eta baliabideak, ahozko eta idatzizko

erabilerarako irizpideak, hornitzaile eta enpresa laguntzaileekiko harremanak, erakundeekiko harremanak, udalerrian euskararen normalkuntzaren alde lanean ari diren sektoreekiko elkarlana.

Helburu nagusia bada euskara zerbitzu zein lan hizkuntza gisa normaltasunez erabiltzea, argi dago hizkuntza ohiturak aldatzeko prozesu batez ari garela, luzea eta nekeza, enpresaren agente eta estamentu guztien partaidetza eta inplikazioa behar duena. Helburu txikiez jositako bidea izango da, emaitzak apurka-apurka izango dituen, epe laburrean zein luzean.

Ezagutza, erabilera eta motibazioa eta aldeko jarrerak sustatzeko ekintzak eta neurriak hartu behar dira kontuan planetan.

2. GALDERAREN ERANTZUNA

Udalak, enpresa den aldetik, badauka zer ikasi lan munduko Euskara Planetatik, eta sarritan aitzindaria den aldetik, zer eskaini ere badauka, lan metodologiari, baliabideei eta helburuak lortzeari dagokienez. Gure udalerrian udala da Euskara Plan osotuena eta aurreratuen duen enpresa. Bera da neurri batean eredu eta akuilu enpresetako Euskara Planak garatzeko.

EAEko toki-administrazioetako Erabilera Planak Dekretuz araututa daude baina udal bakoitzak hartu behar du plana egiteko erabakia. Administrazioak hizkuntza bien ofizialtasuna bermatzeko betebeharra dauka, gutxienez zerbitzu hizkuntza euskara izango dela ziurtatzeko. Udallerri euskaldunetako udaletan, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza gisa erabiltzen da.

Erakundearen inplikazioa sustatzeko baina, udalak badauka zer ikasi. Udaletan zuzendaritzak (Udal Korporazioak) hartzen du Erabilera Plana egiteko erabakia, baina badaude zailtasunak plana erakunde osoan zehar hedatzeko, zuzendaritzako kide guztiek plana bere egiteko eta langileen partaidetza eta inplikazioa sustatzeko. Kontuan izan behar da udaletan ez dela ohikoa Plan Estrategikoa zehaztuta izatea.

Udala baliabideen arloan errekurso garrantzitsua izan daiteke enpresetarako, bere plana garatzen duen esperientzia konpartituz, ekarri interesgarria egin diezaioke Erabilera Plana egin nahi duen enpresari.

Ezin dugu ahaztu, hala ere, euskarak lan munduan eta, oro har, gizartean duen estatusak eta prestigioak eragina badutela erabileran. Euskararen normalizazioaren aldeko lanean elkar eraginez, udalean zein enpresetan egindako lanak udallerri osoan izango du aldeko eragina, euskararen estatusari eta prestigioari eta ondorioz, erabilerari dagokionez.

3. GALDERAREN ERANTZUNA

Herri euskaldun baten ikuspegitik, eta enpresetan osatu dugun diagnostikoa gogoan izanda, enpresetan aldeko egoera dugu: langile gehienak

Euskara Planak enpresaren jardun luzezabala hartu behar du: langileen kontrataziorako eta prestakuntzarako hizkuntza irizpideak, hizkuntza paisaia, informatika-programak eta baliabideak, ahozko eta idatzizko erabilerarako irizpideak, hornitzaile eta enpresa laguntzaileekiko harremanak, erakundeekiko harremanak, udalerrian euskararen normalkuntzaren alde lanean ari diren sektoreekiko elkarlana.

Labur esanda, era honetako neurriak indartzea ekarriko luke: enpresei baliabideak eskaini euskaraz lan egin dezaten, euskaraz lan egiteko prest daudenen sareak eraiki eta udalerrian euskararen normalkuntzaren alde beharrean ari diren beste eragileen lanarekin uztartu.

euskaldunak, bezero asko ere bai, aldeko jarrera zabala, gazte asko euskaraz lan egiteko prestatuta, lan munduan parte hartzen duten eragile guztiak bat etortzea euskarari lan munduko ateak irekitzeko...

Kontrako faktoreak ere badira: erabilera eskasa, gaztelaniaren aldeko hizkuntza ohiturak lanean zein gizartean, eta euskarari prestigio eta estatus eskasa aitortzea.

Beraz, bada, aldeko faktore nagusiak indartzeko eta kontrako faktoreak aldeko bihurtzeko edo behintzat euren kontrako eragina murrizteko bidea ipini beharko litzateke planen bitartez.

Labur esanda, era honetako neurriak indartzea ekarriko luke: enpresei baliabideak eskaini euskaraz lan egin dezaten, euskaraz lan egiteko prest daudenen sareak eraiki eta udalerrian euskararen normalkuntzaren alde beharrean ari diren beste eragileen lanarekin uztartu.■

EUSKARA LAN MUNDURA

Bortzirietako lan munduko batzordea

Helbide elektronikoa: bortziriak@euskalnet.net

Aurrekariak. 1995ean Baztango, Bortzirietako eta Malerrekako euskara zerbitzuek lehenbizikoz heldu zioten gai honi. Lan munduan, bertze alorretan bezala, egoera hobetzeko lana sistematizatu beharra zegoen. Orduan, batzorde bakarra eratzea proposatu zen. Udal eta mankomunitateetako euskara teknikarien laguntzaz, plangintza bat prestatu zen, baina asmo onen aitortpenaz haratago, saiakerak ez zuen izan behar bezalako emaitzarik.

Sorrera. Helburua enpresa munduan euskararen erabilera normalizatzea bazen, aurreneko, egoerari buruzko azterketa sakona behar zen egin. Horretarako, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen baitan, lan taldea eratu zen, 2000. urtean. Horrek izan zuen, noski, segidarik; Lan Munduko Batzordea sortu zen talde eragile horretatik. Sorreraz geroztik, bertan parte hartzen dute Bortzirietako lantegi nagusietako langileen ordezkariak, Bortzirietako euskaltegiko ordezkariak eta Bortzirietako euskara teknikariak. Batzordea bera indartzea izan da asmo nagusienetakoa urte hauetan guztietan. Azken aldian, iraunkorki, Savera, Funvera, Arcelor, Contesa, Martiko eta Zelaietako langileen ordezkariak bildu ohi dira batzordean.

Euskararen erabilera lan munduan areagotzeko. Helburu jakin bat erdisteko bitarteko egokia aukeratu behar da, delako helburua arrakastaz beteko bada. Enpresa baten funtzionamendua euskalduntzeko bitarteko edo tresna funtsezkoa da erabilera plana, hori aspaldian ikasi genuen. Gurean, ordea, erabilera planerako pauso hori ez da oraindik gertatu. Haatik, enpresek erabilera planak abia ditzaten gutxieneko baldintzak sortu nahi izan ditu Lan Munduko Batzordeak. Tamainako egitasmo bat ez baita hutsetik sortzen. Honako hauek izan dira, beraz, lan ildo nagusiak:

Gutxieneko eskakizunak. Lan Munduko Batzordeak lan hitzarmen batek jaso beharko lituzkeen gutxieneko neurriei buruzko txostena egin du, baita Bortzirietako enpresetara bidali ere. (Euskara ikasteri buruz, kanpo harremanei buruz, errotulazioari buruz, harrera hizkuntzari buruz, kontratazio politikari buruz, etab.)

Euskalduntze-alfabetatzea. Alor bakoitzerako propio egindako matrikulazio kanpainak arrakastatsuagoak izan ohi direnez, lantegietan, kanpaina berezitua egiten da 2001az geroztik. Hainbat enpresatan euskalduntze alfabetatze ikastaroak osorik ordaintzen dituzte. Bertze batzuetan, berriz,

Lan Munduko Batzordea sortu zen talde eragile horretatik. Sorreraz geroztik, bertan parte hartzen dute Bortzirietako lantegi nagusietako langileen ordezkariak, Bortzirietako euskaltegiko ordezkariak eta Bortzirietako euskara teknikariak. Batzordea bera indartzea izan da asmo nagusienetakoa urte hauetan guztietan. Azken aldian, iraunkorki, Savera, Funvera, Arcelor, Contesa, Martiko eta Zelaietako langileen ordezkariak bildu ohi dira batzordean.

Lan Munduko Batzordeak hitzorduak antolatu ditu aholkularitza enpresa eta lantegietako zuzendaritzako zein langileen ordezkarien artean, Aceralian (egun Acerlor), Funveran, eta Saveran. Batzordekideek, bertzalde, bertatik bertara ezagutu ahal izan dituzte enpresa munduko euskalduntze esperientzia eta saiakerak, Elay, Irizar, CAF eta berrikiago AMPO-POYAMera egindako bisitetan.

matrikularen portzentaje bat. Funveran, Arcelorren eta Martikon, erraterako, matrikualaren %100 ordaintzen dute, hala jasotzen delako beren hitzarmenetan.

Sentsibilizazio kanpaina. 2002tik aitzinera, urtero, Lan Munduko Batzordeak euskararen aldeko jarrera eta motibazioa lantzeko kanpaina egin du, eta, enpresek finantzatu izan dute. Kudeaketa eta diseinua euskara zerbitzuaren ardura izan dira. *Euskara, zure laneko erreminta* leloarekin, lantegietako txoko guztietan paratu dira afitxak. Sentsibilizazioa ez ezik, hiztegi tekniko ere landu nahi izan da kanpaina hauen bidez. Batzordeak, aurtengo egitasmoan, aurreikusia du hiztegi txiki bat argitaratzea.

Erabilera planak ezagutzera eman. Hauxe dugu hirugarren lan ildo nagusia. Lan Munduko Batzordeak hitzorduak antolatu ditu aholkularitza enpresa eta lantegietako zuzendaritzako zein langileen ordezkarien artean, Aceralian (egun Acerlor), Funveran, eta Saveran. Batzordekideek, bertzalde, bertatik bertara ezagutu ahal izan dituzte enpresa munduko euskalduntze esperientzia eta saiakerak, Elay, Irizar, CAF eta berrikiago AMPO-POYAMera egindako bisitetan.

Savera. Zuzendaritza taldeko zenbait kidek eta langileen ordezkariak euskararen erabilera areagotzeko prestutasuna agertu dute azken urteotan. Errotulazioa, eta gehien erabiltzen dituzten agiriak euskalduntzeko erabakia hartu zuten, lehenbizi. Horretarako, euskara mankomunitateak bere laguntza tekniko eskaini die uneoro. Erabilera plana abian jartzeko ahaleginean urruti ailegatu dira. Langileek gai honi buruz zuten jarrera ezagutu nahi zuten, aldez aurretik. Horretarako, galdetegi bat prestatzea erabaki zuten. Elhuyarren aholkularitza izan zuten, galdetegia diseinatzeko. Egin eta banatu bai, baina ez zuten lortu espero zuten emaitzarik. Horregatik, erabilera plana abiatzeko aukera baztertu zuten, behin behingoz.

Jardunaldiak. Honen guztiaren jarraipen gisa, 2004an jardunaldi batzuk antolatu ziren, *Euskara lan munduan: Egoera eta Erronka Nagusiak. Normalkuntza* saioak izenburu pean. Helburua bi urte lehenago hasitako bideari segida ematea zen. Hitzaldi eta mahai inguru bana egin ziren, betiere, lan munduan normalkuntza saioak egon badirela eta arrakastaz bete daitezkeela erakutsi asmoz.

Erronka nagusiak. Enpresak erantzukizunez jokatu beharra du txertatzen den ingurunearekiko. Hori da azken aldian Lan Munduko Batzordeak egiten duen hausnarketa. Erabilera planen "promozioan" euskararen aldeko jarrerak enpresarekiko identifikazio faktore gisa, eta hortaz, produktibitatearen hazkundean izan dezakeen eragin onuragarrian jarri izan da azpimarra. Argudio horri uko egin gabe, bertze arrazoi bati forma

eman nahian dabil batzordea. Enpresa batek ezin badu ingurunea kutsatu nahi erara, ezartzen deneko inguruneari zor dion errespetuagatik (alegia, ezin du ingurune horren oreka erasan), ezin du, arrazoi berberagatik, ingurune kulturalari bizkarra emanez jardun, eta bertako biztanleen hizkuntza baztertu.

Bertzetik, Bortzirietan, *Bai Euskarari Akordioarekin* bat egin du elkarte, merkatari, dendari eta enpresa txikien kopuru handi batek. Agerikoa da hizkuntzaren normalizazio sozialerako nahia. Hori guztia azaldu nahi zaie langileei eta enpresariei bereziki, oraindik orain, horretarako modua edo euskarria erabakita ez badago ere. Lan Munduko Batzordearen erronka nagusia, hurrengo urteotan, horixe izanen baita, Bortzirietako lantegietan euskararen aldeko konpromisoak har daitezen eragitea eta galdegitea.■

Enpresak erantzukizunez jokatu beharra du txertatzen den ingurunearekiko. Hori da azken aldian Lan Munduko Batzordeak egiten duen hausnarketa. Erabilera planen "promozioan" euskararen aldeko jarrerak enpresarekiko identifikazio faktore gisa, eta hortaz, produktibitatearen hazkundera izan dezakeen eragin onuragarrian jarri izan da azpimarra. Argudio horri uko egin gabe, bertze arrazoi bati forma eman nahian dabil batzordea.